

IPAR KURDISTAN

Kurduen garai bateko zaza hizkuntzari buruzko eztabaida bizirik dago Anatoliako penintsulan

 **JENDARTEA** / Miguel Fernandez Ibañez

Batzuek diote zaza herriak talde etniko propio bat osatzen duela, Turkiako Estatuari interesatzen zaion moduan, eta beste batzuek, aldiz, herri kurduaren zati bat baino ez direla. Ipar Kurdistango makina bat herri bisitatu eta era guztietako iritziak jaso ditugu. Kurduen mugimendua ahultzeko erabiltzen du hizkuntza Ankarak.

Anatolia penintsulako ekialdean bizirik dago zaza herriaren inguruko eztabaida. Batzuek diote talde etniko propio bat osatzen dutela eta beste batzuek, aldiz, herri kurduaren zati bat baino ez direla. Azken boladako eztabaida akademikoak 30 urte ditu dagoeneko, baina herritarren erantzunak indar politikoei eragindakoak dira. Batzuek Zazaistan esaten dioten eremua Ipar Kurdistanen dago. Kamilek Er-ganiko irteeran gelditu du ka-

mioia. Diclera doa. Beste 30 kilometro. Ni eramateko prest dago. «Zertan ari zara hemen?», galdetu dit agurtu ostean. «Zaza herria ikertzen», erantzun diot.

Kamilen kamioi zaharra Udalak erabiltzen zuen bere garaian, hormigoia garraiatzeko. Errepideko zuloekin batera dantzan ari dela dirudi. Ezkerrean, Taurus mendilerroa dugu (beste aldean, Elazig probintzia kontserbadorea). Eskuinean, Diyarbakir hirira doazen bide irregularrak.

Errepidearen bi aldeetan, Turkiako banderak dituzten kasetak. *Korucu*-en etxolak dira, Ipar

Ali (ezkerrean) eta Celal burdin artisauak beren tailerrean.
Miguel FERNANDEZ

Kurdistanen PKK gerrillaren aurkako borrokan Estatuak erabiltzen dituen zaindarienak. Kamil haserretu egiten da horiek ikuste hutsarekin: bere ustez, zaza herriaren inguruko eztabaidak badu zerikusirik *korucu* horien arazoarekin: «Estatuaren erruz kurduak saltzen dituzten kurduak dira».

Anatoliako hemezortzi hizkuntza daude desagertzeko zorian eta zaza hizkuntza horietako bat litzateke, adituen arabera.

BI MILIOI HIZTUN

Bi milioi lagunek egiten dute zazeraz, batez ere herrixketan; gehienek 1980ko hamarkadan hasitako gatazka akademiko eta politikoari kasu handirik egin gabe. Batzuen arabera, zaza herriak talde etniko propio bat osatzen du (Turkiako Armadak bat egiten du posizio horrekin). Besteek, HDP Herrien Alderdi Demokratikoaren ingurukoek, berriz, esaten dute zazak kurduak direla eta Ankarako Gobernuak erabiltzen duela kausa hori kurduen mugimendu politikoa zatitzeko.

Akademikoak ez dira ados jartzeko gauza izan eta herritarrek, horien xehetasun teorikoak alde batera utzita, eskualde bakoitzean nagusi den indar politikoaren arabera erantzuten dute: Diyarbakirren esango dizute zazak kurduak direla; Elazigen eta Bingolen, zazak ez direla kurduak eta bakarren batek bota dezake turkiarrak direla; eta herrialdeko hezkuntza mailarik onena eskaintzen duen Dersimen bi eratako erantzunak jasoko dituzu.

«Zazen inguruko eztabaidan eragina dute propaganda politikoak zein erlijiosoak. Batzuek lehentasuna ematen diote erlijioari, eta besteek etniari, baina bi kasuetan propagandak eragin du herritarren posizioa», Zulfu Selcan hizkuntzalariak GAUR8ri onartu dionez.

Dicle herriak garrantzia estrategiko handia du Kurdistan-gatazkan. Bertako urtegien



aurkako makina bat eraso egin ditu PKK-k, baina ezin da esan gatazka bertan beste lekuetan baino gogorragoa denik (horretarako mendian gora joan behar da, edo ekialdean, Licera).

Bertan hasten da AKP Justiziarren eta Garapenaren Alderdia-
ren (Erdogan presidentearena) presentzia. Bisitariari ez zaie ongi-
gietorrik egiten.

Kamil gidariak esplikatu digu-
nez, «herrixka hau zaza da, eta
ondokoa, kurdua. Nahastuta bizi
gara. Zazak hizkuntza ezberdin
bat duten kurduak dira».

ZAZERA, KURDUERA ETA ALA

Herrixka bat ikusten dugun ba-
koitzean, gure gidaria zazerazko
izena esaten saiatzen da. Bere
hiru seme-alabek zazeraz ikas-
tea nahiko luke: «Ehun urte

«Ez gara herri bera. Gu ez gara kurduen kontuetan sartzen, baina beraiek gure kontuetan bai. Dicleko herritarrak ez zaizkit gustatzen terrorismoaren aldekoak direlako»

Iaz egin zen erreferendumean, Erdogan presidenteak eskatutako baiezkokoak erraz irabazi zuen Alacakayan (%79,4), Diclen bildu zituen aldeko botoen proportzioa bikoiztuta

egin ditugu geure hizkuntzaren
alde borrokan, eta beste ehun
egingo ditugu».

Azkenean Diclen gara. Erdigu-
nea sekulako aldapa da. Gora
eginez gero, mendietara zoaz,
oso lagun gutxik hartzen duten
bidea. Alik eta Celalek diote za-

zak kurduak direla: «Kurduak
gara, baina geure hizkuntza za-
zera da. Edonola ere, garrantzi-
tsuena Ala eta Korana dira», es-
plikatu dute burdin artisauek.

«Kurduak zazak bereganatzen
ari direla esaten da», bota diegu.
«Gezur hutsa! Estatuak zabaldu-

tako gezurra! Bilgol eta Elazige-
ko biztanleak bai, horiek Turkia-
ko Estatuak asimilatu ditu. Kur-
duok Estatuaren asimilazio
ahaleginak jasan behar izan di-
tugu, baina inoiz ez dugu inor
geureganatu», laburtu du be-
raien posizioa Alik, bisitariari
tea eskaini aurretik.

Kurdu gehienek iritzia bat da-
tor Sebahattin Gultekin irakas-
leak esaten duenarekin. Zaze-
razko gramatikari buruzko
zenbait liburu idatzi dituen gi-
zonak dio zazera garai bateko
kurduera baino ez dela. Beste
hizkuntzekin ia harremanik
izan ez duenez, kurduerak ez
duen purutasunari eutsi dio. Be-
rak “kirmancki” deitzen dio za-
zerari eta bat dator Alirekin Tur-
kiako Estatuak kurduak zatitu
nahi dituela esatean.

Dicletik 34 kilometrora dago
Alacakaya. Bertan Gultekinen
ideiek ez dute indarrik. Herri
txiki horretara iristeko Dicleko
kale nagusia utzi eta beste bat
hartu behar da. Bertan ez dute
zerbitzu publikorik eta ia ez da
autorik ikusten.

PKKren aurkako gerra ez da
hemen beste herri askotan be-
zain gogorra izan, baina ezin
esan bakean bizi direnik. Aurre-
rago jakin nuen Dicle eta Alaca-
kayako herritarrak beraien arte-
an gaizki konpontzen direla.
Horregatik, Dicletik Alacakayara
garraio publikoa erabiliz joateko
Erganira itzuli behar duzu eta,
gero, Elazig eskualdean sartu,
Maden herrira iritsi eta bertan
autobus urdin txiki bat hartze-
ko. Ibilgailuak eramango zaitu
aldapaz jositako bidean, herrix-
ka zaza eta kurduen artean.

Herritarrak txantxetan ari di-
ra autobusean. Mendiaren ara-
berako egitura duen Alacakaya-
ra iritsi baino lehen Mehmetek
bere etxean ostatu hartzeko au-
kera eskaini dit. Elkarrekin goaz
kafetegi batera: Anatoliako baz-
ter guztietan bezalaxe, bezeroak
kartetan ari dira. Emakumerik
ez da ageri kalean; are gutxiago
kafetegian.

«HERRI EZBERDINAK GARA»

«Herri ezberdinak gara, geure
kultura eta hizkuntza antzekoak
diren arren», adierazi du Gokha-
nek, mahaira kartak botatzen
dituen bitartean. Futbol partida
jakin batean zein talderen alde
apustu egin galdetzen die lagu-
nei. 23 urte ditu, supermerkatu
batean egiten du lan eta aurki
ezkontzekoa da. Mehmeten le-
hengusua da. «Ez dakit egia
izango den kurduak gu asimila-
tu nahian dabiltzala, baina Esta-
tuak ez du kontu hau erabili
kurduak zatitzeko», esan digu.

Aziz ere kartetan ari da. Gok-
hanek baino hamar urte gehia-
go ditu eta berak esaten du joki-
lari hobe delako. Ez dator bat
kurdu askok esaten dutenare-
kin: «Ez gara herri bera. Guk
kurdueraz ikasten dugu, baina
beraiek zazeraz ez. Gu ez gara
kurduen kontuetan sartzen, bai-
na beraiek gure kontuetan bai.
Hauteskundeetan izaten diren



Kamilen kamioi zaharrak errepideko zuloekin batera dantzari ari dela dirudi. Miguel FERNANDEZ

OSKAR MANN HIZKUNTZALARI ALEMANAK IPINI ZUEN TURKIAKO ESTATUARI KOMENI ZAION EZTABAIDAREN HAZIA

Amaitzeko itxurarik ez duen eztabaida akademikoaren hazia Oskar Mann hizkuntzalari alemanak ipini zuen XX. mendeko lehen urteetan. 1903an eta 1907an bisitatu zuen Anatolia, hegoaldea eta erdialdea zehazki. Orduan konturatu zen Urfa eskualdeko Siverek herriko biztanleek ez zutela kurmanjin hizkuntzan egiten, Ipar Kurdistanen nagusi den kurdueraren aldaeran, beste hizkuntza batean baizik. Beste hizkuntza horri zazera deituko zioten.

Mannen eta bere jarraitzaileen teoriak ahaztuta geratu ziren urte askoan, 1980ko hamarkadan Turkiako Estatuaren eta PKK Kurdistango Langileen Alderdiko indarren arteko borrokak hasi ziren arte.

Geroztik bi teoria ditugu. Lehenengoa Alemaniatic dator, Anatoliatik ihes egin behar izan zuten herritarrek bultzatuta. Mesut Keskin eta Zulfu Selcan bezalako hizkuntzalariek diote zaza eta kurdua bi herri ezberdin direla. «Lurralde bateko bi herri bi hizkuntza badituzte, eta herri batekoak bestekoarekin hitz egiteko gai ez badira, bi herri ezberdin dira», dio Zulfu Selcanek.

Erakunde kurdu askoren sostengua du beste tesiak, Rosan Lezgin eta Sebahattin Gultekin bezalako adituek defenditzen dutenak. Zazera garai bateko kurduera baino ez da, beste hizkuntzekin harreman gutxiago izan duelako gutxiago kutsatu dena. Horregatik ezberdina dirudi.

«Zazera mendia artean bizirik jarraitzen du. Horixe da garai bateko kurduera, eta bertatik sortu ziren sorani eta kurmanji bezalako aldaerak. Antzina Estatuaren presioak eragin zuen herritar askok mendietara ihes egitea, hizkuntza, erlijio eta guzti. Ez dut ulertzen Mannek zergatik esan zuen zazera hizkuntza ezberdina dela. Bera Siverekera joan zen, baina Dersimera joan izan balitz, esango zukeen han ere beste hizkuntza bat dagoela, Siverekekoek bertakoek esandakoa ezin dute ulertu-eta», esplikatu du Gultekinek.

Bi hizkuntzak alderatu ditu Gultekinek. Ondorioztatu du zazeraren eta kurdueraren gramatikak sekulako antza dutela, persierak ez duena, esaterako. Hitz asko, hori bai, ezberdinak

dira, baina adituak dio kurduerak beste hizkuntzetako hitz asko hartu dituela, eta hortik sortu direla ezberdintasunak.

Gainera, Historiak ere tesi hori sustengatzen duela idatzi zuen Abdulla Ocalan PKK-ko buruak (Turkiak preso dauka oraindik) «War and Peace in Kurdistan» izenburuko liburuan.

Zulfu Selcanekin Mamakin hitz egin dugu. Hori hiriaren zazerazko izena da, turkieraz Tunceli esaten baitiote, eta kurdueraz Dersim. Unibertsitateko bulegoan esplikatu digu ez duela Gultekinekin ezer eztabaidatzeko asmorik. «Turkiako Estatuaren agente bat naizela esan didate, baina guk debekatuta zegoen hizkuntza bat defenditu besterik ez dugu egin. Salaketa horiek gezur hutsa dira», esan digu. Lasaitasunez hitz egiten du, PKK aipatu dugun arte. Bere arreba erakunde horretako kidea zela hil zen. «PKKren eraginez bere buruaz beste egin zuen», salatu du irakasleak. Bere ustez PKK-k eragin du zaza eta kurduen arteko egungo aldea, erakunde hori sortu arte guztiak elkarrekin bizi baitziren.

emaitzei erreparatzea nahikoa da pentsaera ezberdina dugula konturatzeko. Niri Dicleko herri-tarrak ez zaizkit gustatzen terro-rismoaren aldekoak direlako».

Iaz egin zen erreferendume-an, Erdogan presidenteak eska-tutako baieztokak erraz irabazi zuen Alacakayan (%79,4), Diclen bildu zituen aldeko botoen pro-portzioa bikoiztuta. Mendi arte-ko leku honetan Gobernuak dio-enarekin bat egiten dute: zazak ez dira kurduak. Gainera, Azizek onartu digunez, beste erlijioen bat dutenekin ez dira fidatzen: «Tunceliko herria zoragarria da. Arazo bakarra erlijioa da; horrek zatitzen gaitu».

Alacakaya utzi eta mendian behera hasi gara. Aldapak amai-tzen direnean, urtegiak hasten dira. Azkenean Kovancilar hiria ikusi dugu, Elozig, Bingol eta Tunceliren arteko bidegurutzea. Azken hiri horretara hurbiltzen garenean, *korucu*-ak ageri dira. Aldapa berriz. Mendiak dira kurduen lagun bakarrak.

Tunceli Dersim hiriaren tur-kierazko izena da. Zaza herria-ren inguruko eztabaidaren zen-tro inportanteetako bat da, turkiar gehienentzat garrantzi-rik ez duen kontua, baina kur-duentzat lehentasuna duena.

TRADIZIO KOMUNISTA

Azken urteotan HDP asko indar-tu da tradizio komunista duen eskualdean. Erlijioari dagokio-nez, aleviak dira herritarrek, eta musulman suniten alderdiak ez dituzte gogoko. Herritar ba-tzuek diote alevismoa ez dela erlijio bat, iritzi multzo bat bai-zik. Ataturk errespetatu egin be-har al dute? Hau da, 1937ko eta 1938ko beraien aurkako bonbar-daketak agindu zituen aginta-riarekin zer egin behar dute? Zer dira, turkiarrak, kurduak, za-zak...? Egun osoa eztabaidan pa-sa dezakete Tunceliko lagunek.

Adituek diote mendia artean ezkutatuta dauden herrixka ho-rietan zazerak beste inon baino indar handiagoa duela. Zaharre-nek menderatzen dute beren hizkuntza, baina gazteenak An-karak abian jarritako asimilazio politikaren biktima izan dira eta ezin dute zazeraz egin.



Zazerazko gramatikari buruzko zenbait liburu idatzi dituen Gultekin irakasleak dio zazera garai bateko kurduera baino ez dela. Miguel FERNANDEZ

«Ni herritar xume bat beste-rik ez naiz eta ez dakit gauza handirik, baina ez nuke esango ezberdinak garenik. Estatua da gu zatitzen ari dena. Hiri hone-
tan era guztietako sufrimendua jasan behar izan dugu», esan du 75 urteko Hadirrek. Ondoan du Seyid Riza herriko buruzagiaren omenez zutitutako estatua. Supermerkatuko gerenteak isilka esan digu beraiek zazak direla, eta 30 urteko emakume batek zalantzarik gabe esan du kurduak direla. Badirudi gazteek hobeto ulertzen dutela kontua.



Tunceliko Unibertsitateko zazerazko literatura departamen-
tuan berehala antzematen da gaiak eragiten duen aztoramen-
dua. Ikasle gehienak Ipar Kur-
distan goi lekuetatik etorri-
takoak dira: irakasleek bertsio
ofiziala eman badiete ere, zazak
ere kurduak direlakoan daude.

Ikasgelan posizio horri eutsi
dioten ikasleak zigortu izan di-
tuzte. «Unibertsitatean ez dago
adierazpen askatasunik eta
ematen diren edukiak ez dira
batere objektiboak. Selcanek gai
honi buruzko eztabaida politi-
koak debekatu egiten dizkigu.
Bere klase batean bere posizioa-
ren aurkako jarrera azaldu nuen,
'probokatzaila' deitu ninduen,
'kanpoko indarren
aldekoa' zela nire jarrera. Ikasle-
en %70 nik esandakoaren alde
daude, baina hilabete bateko zi-
gorra ezarri zidaten eta azkene-
an horko ikasketak uztea eraba-
ki nuen, ezberdintasun
ideologikoen eraginez», azaldu
digu Emrulla ikasle gazteak. Sa-
kelako telefonoan gordea du
egun hartako eztabaida.

EZINEZKO EZTABAIDA

Zulfu Selcan Unibertsitateko de-
partamentuko buruak esaten du
zaza herriak talde etniko pro-
pioa osatzen duela: «Zazerazko
literaturan lizentziadunak izan-
go dira nire ikasleak, ez kausa
politikoetan. 30 urte daramatza-
gu gaiari buruzko gezurrak en-
tzuten. Kontua bide politikotik
eraman nahi dutenak zigortu
egiten ditugu».

Emrulla beste Unibertsitate
batera joan zen azkenean. Bere
ustez, Selcanek bere burua saldu



Goiko irudian, Maden
herria, Alacakayara garraio
publikoa erabiliz joateko
pasatu beharreko puntua.
Miguel FERNANDEZ

Ezkerreko mapan batzuek
Zazaistan deitzen dioten
eremua (zazeraz egiten
diren lekuak) eta Ipar
Kurdistan azaldu ditugu.
GAUR8

dio Turkiako Estatuari. Gaiari
buruzko eztabaida aske bat egi-
teko eskatzen du, baina oso zaila
dirudi Turkian duten testuingu-
ruan, unibertsitate guztietan
eduki homogeenak ematea
baita agintari islamisten asmoa.
Asimilazio hitzarekin nazka-
nazka eginda daude Ali eta Ce-
lal, alde batetik, eta Aziz, beste-
tik. Kamilek, berriz, kamioia
gidatzen jarraitzen du eta esan

**«Unibertsitatean ez dago adierazpen
askatasunik eta ematen diren edukiak ez dira
batere objektiboak. Selcanek gai honi buruzko
eztabaida politikoak debekatu egiten dizkigu»**

**Zulfu Selcan: «Zazerazko literaturan
lizentziadunak izango dira nire ikasleak, ez
kausa politikoetan. 30 urte daramatzagu gaiari
buruzko gezurrak entzuten»**

digu kurduen eskubideak alda-
rrikatzen segituko duela, inoiz
etsi gabe. Aipatzen dituen le-
hentasunen artean «ama hiz-
kuntzan emandako hezkuntza»
dago. Bere burua kurdutzat
duen gidariaren arabera, zaza
indoirandar familiako hizkun-
tza bat da, zoroastrismo edo
mazdeismoaren «Avesta» liburu
sakratuarekin, persierarekin eta
balutxerarekin lotura duena.